

Ogia eta mestura

L.: ta geo, geo bazunan, ara, etxe an ogia iten zunan bethi, erteko moldian iakoitz guziz, guk gue ogi par... Alo, ogi puska at, ogia, ta (...) apepres zenbat ogi iten aal zen, bena zonbat irin ogitzen aal zen, geo mestura artotik iten zunan mestura, artoa eiharan ehaiten, ta ahal bezen, bon, irin una galdditen baiginien mesturain iteko, ta ordian haekin iten zunan ootxa, erran nai dut, ogia re ootxa, ta ogitik iten zunan, alo, aitzineko astian ina zunan olako ophil ttipiño at, pilotain eiñeko at, ta ua atxikitzen zunan eta paperain barnian, paper olako zer bat, ta hua iakoitzetan iten zunan, iakoitz ez... Ostial atsaikilan, ola, bezperatik, kaxola atian, ur xorta at eman, eta hua xeatu, ta hari irin puska atekilan, ootx puska at, hua altxagarria, hara, orduko levure-a, gero hua arrañatzen zunan, iten zunan ogiain harrotzeko, ta mesturari re emaiten zunan, mestura re arrotzen zinan, ta, ara, gure levurre-a ori zunan, ta iten zunan ogi ederra, labea ederki gorrituik, ba suaia, suaia tiratzen... Bizkarraz tiratuz zonbait aldiz, abarra, gorritu artio ua, abarra bear zinan anitz, ta hola, gure orduko jos... Ez zunan ez josteta haundik, dena tira, egurra re zonbait aldiz, eskas bazen, gu egurka, geo beste batzutan berri, behiekin kartzen herrestan, ta aal zen bezala, bon, gainbeheiti zunan, behar e, oihana gaiñean baitzen, ta beste (...), berri, gisa artako lekian balin baginen, astoaekilan, egurra xeatu, ta astoaekin atea, etxeat egurra astoaekin ekartzen gininan, ta ola, ez zunan frangotan orgabideik ez zunan niun e, herrestan kartzen zen ua re mendiari beera kartzen zunan herrestan, ta astoaekin iiltzeko gisan zen toki hua, ara, xendratik kartzen, astoan. Ah, gure bizia olaxe pastu un, oai kanbio un ba, ez dun egurra ola tiratzen ez.

E.: eta ogiaren egiteko irina erosten zinuten?

L.: ba, ba, ua, ua, bon, erosten zunan behin sosiekin, alo, erosten zunan sosa zelaik, ta geoztik, geo, artoa iten gininan, arto polita iten zunan ba, artoa, bon, ba, ba, ez zunan kaaler emaiten, hara, hori un, oai emaiten ardier eta deuseri. Oiloendako, urden... Urden gizentzeko doia, ta hola, geo bestia, arthoa mesturain iteko, mestura iten zen haen pastaindako, oai, apepres, eman... Hoita amar kilo apepres, ehaien zunan, eiharan pasten, eta ua artzen gininan zortzi guziz mesturain iteko, irin ua, ta ordian ogiai laguntzeko, ta baiginen gu re sei haur eta aita-amak, zorzi. Ba, denek bear dine bizi, eh! Ta alaxet, gue bizia ola joan dun. Geo, ala-ala, ez zunan ez oai bezala anoik eta, ba sagaranoa inik ukan dinat kotsia, na, eh, ua fite edana zunan. Maatsik ez zunan niun e, anoa kartzen zen xorta Donianen or Erreainia baitzen len eta anoa saltzen zutena, hor, hortik, bi xaako, bi pinta et erdiko xaako beteik, erran nai baita, bost pinta, bost pinta, are, astia, ta hua olaxet, ahal bezin kasu inez edaten, noait jiten bazen baso bat anoin emaiteko xantzain ukaiteko, olaxet, aitak, askaiten zelaik, edaten zinan

ak xirixta at, gu bazterretik so, ta ze naun itia, ez bazen, ez zunan, eh! Guk esnia, esnia, arto ta esne, haurrek denek, oi, oi! Oitzen nun ama zenak nola ezartzen zaun prest poskatuik eta bola betheik, guk salda, batxui-salda, hua edan orduko, jakizu, ta geo zopako ogia iten zunan, zopako ogia, oai, erran nai dinat, batxui saldan bear baitzen ogia bear baitzen, zopa, ua iten zinan ogi peza at, oai, hartu ootxa ta xahal-xahala, metre erdi bat luze ta metre erdi bat largo ez, ez, ez, man, laburro! Apepres hoita amar zantimetrako at largoan, ta ordian ua palan, ogiaren sartzeko palan sartzen zunan labian, ta ua fite erre.... Oai erratzen baitzien untsa, gero ogia jartzen zunan dena erreik, ta hua amak, dena axala baitzen, dena axala, ua zunan gure besta. Hua, haekilan salda, hua zunan saldain ogia, alo, batxui saldaindako, gue... Zopako ogia, hua, frangotan biga iten zitunan artaik, ba, ba.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendaria: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filología doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala